

Kale Neurketa<
>SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA

**GERNIKA-LUMOKO
HIZKUNTZA-ERABILERAREN
KALE-NEURKETA, 2011
-EMAITZEN TXOSTENA-**

Andoainen, 2012-06-01ean



MARTIN UGALDE KULTUR PARKEA ■ 20140 ANDOAIN ■ Tel.: 943 592556 ■ kluster@soziolinguistika.org

AURKIBIDEA	
GERNIKA-LUMOKO	0
HIZKUNTZA-ERABILERAREN	0
KALE-NEURKETA, 2011	0
-EMAITZEN TXOSTENA-	0
1 SARRERA	2
2 METODOLOGIA	3
2.1 Euskal Herriko hizkuntza-erabileraren kale-neurketaren metodologia	3
2.2 'Gernika-Lumo 2011' neurketaren fitxa tekniko	11
3 ERABILERERA GERNIKA-LUMON, 2011. URTEAN: EMAITZA OROKORRA	16
3.1 Elkarrizketen erdiak baino gehixeago euskaraz Gernika-Lumon	16
3.2 Erabilerarena testuinguratzeko bi datu garrantzitsu: herritarren hizkuntza-gaitasuna eta hortik espero daitekeen erabilera maila	18
3.3 Euskararen erabilera Gernika-Lumon, hizkuntza-gaitasuna eta espero daitekeen erabilera aintzat hartuta	22
4 ERABILERAREN BILAKAERA GERNIKA-LUMON (1989-2011)	25
4.1 Euskararen erabilerak zertxobait behera egin du Gernika-Lumon azken 10 urteotan	25
4.2 Erabileraren eta ezagutzaren bilakaerak	28
5 EUSKAL HERRIKO, HERRIALDEKO ETA ESKUALDEKO DATUEKIKO ALDERAKETA	32
5.1 Euskal Herriko, EAEko, Bizkaiko eta Gernika-Bermeoko datuekiko alderaketa	32
5.2 Inguruko hainbat herrirekiko alderaketa	35
5.3 Bilakaeren alderaketa	37
6 ZONALDEKAKO EMAITZAK	39
7 HIZTUNEN EZAUGARRIEN ARABERAKO DATUAK	41
7.1 Sexuaren araberako emaitzak	41
7.2 Sexuaren araberako bilakaera	42
7.3 Adinaren araberako emaitzak	44
7.4 Adinaren araberako erabileraren bilakaera	47
7.5 Euskararen erabilera eta haurren presentzia	49
7.6 Erabilera eta haurren presentzia: bilakaera	52
7.7 Neurketa-egunen araberako emaitzak	57
8 DATU NAGUSIEN IRAKURKETA (LABURPENA)	59

1 SARRERA

Euskararen egoera ona den edo txarra den, hobera doan edo okerrera doan galdetzen digutenean, askotan ez dugu jakiten nola erantzun, eta sarri erantzuna bera oso modu subjektiboan ematen dugu. Zentzu honetan, gero eta garrantzitsuagoa zaigu euskararen egoera eta bilakaera modu objektiboan baloratzeko aukera ematen diguten datuak izatea, eta datu horien artean bada bat herriko euskararen errealitatea adierazteko funtsezkoa dena: kalean euskara zenbat erabiltzen den, hain zuzen ere.

Badira beste hainbat datu (errolako ezagutza datuak, ikastetxe eta euskaltegiakako matrikulazio datuak...) herriko hizkuntza-egoera ezagutzeko baliagarri direnak. Datu eta joera horiek guztiak, nonbait nabarmentzekotan, herriko kaleetan besteak beste ematen den eguneroko erabileran nabarmentzen dira. Kale-erabileraren neurketak, hortaz, errealitate horren berri ematen digu modu zuzen eta objektibo batean.

Kale-erabileraren datua funtsezkoa da herri mailan hizkuntza-errealitatea ezagutu edota planifikatu nahi duen edonorentzat. Euskararen aldeko sustapen-lan bat aurrera eraman ahal izateko baliabideak mugatuak izan ohi direnez, beharrezkoa zaigu premiarik larrienak zein diren ezagutzea, lehentasunak finkatzea, eta ondoren horietan eragiteko ekimenak martxan jartzea.

Neurketak, besteak beste, adin-talde bakoitzak kalean euskara zenbat erabiltzen duen esaten digu, eta horrek erraztu egiten digu ondoren lehentasunak non dauden erabakitzea. Gainera, kale-erabileraren neurketa maiztasun batekin eginez gero (urtero, bi urtez behin...), urtetik urtera gertatzen den bilakaera ezagutu ahal izango dugu, eta modu horretan herrian izaten diren hizkuntza-aldaketak gertutik jarraitu.

2 METODOLOGIA

2.1 Euskal Herriko hizkuntza-erabileraren kale-neurketaren metodologia

Gernika-Lumon egin dugun Hizkuntza-erabileraren Neurketaren oinarri metodologikoa Euskal Herri mailan egiten den neurketan garaturikoa da, baina kasu honetan herriko berezitasunetara egokituta.

Hizkuntza-erabileraren Euskal Herriko Kale-Neurketa 1989. urtean egin zen lehen aldiz, eta geroztik lau zapabost urtean behin errepikatu da: 1993an, 1997an, 2001ean, 2006an, eta 2011n. Euskal Herriko 5.000 biztanletik gorako herri guztietan eta hortik beherako batzuetan jasotzen dira datuak. Orotara 250.000 hiztunetik gora behatzen dira kalean hizketan.

Kale-neurketaren metodologia behaketa zuzena da; neurtzaileek herriko kaleetan zehar topatzen duten jendeak darabilen hizkuntza jasotzen dute, ezertxo ere galdetu gabe. Hala, hiztunek ez dakitenez behatuak direnik, neurtzaileek hiztunaren joera naturala jasotzen dute. Beraz, inkestaren bidez jasotako datuen subjektibotasuna saihesten da eta emaitza fidagarriagoak lortzen dira.

Landa-lana

Landa-lana burutzerakoan neurtu beharreko kaleak aurrez identifikatzen dira ibilbide bat (edo gehiago) zehaztuz. Horretarako irizpide nagusia herriko kalerik jendetsuenak biltzea da: plaza inguruak, parkeak, geltokiak, salerosketa kaleak, eta abar. Ibilbidearekin batera, neurketarako egunak eta orduak ere definitzen dira, eta hauen hautaketan gure helburua herriko biztanle guztiak (potentzialki behintzat) neurtu ahal izatea izaten da; alegia,

hautatutako egun eta orduetan herritar guztiek izatea estatistikoki neurtuak izateko aukera.

Elkarriketa-hizkuntza

Ezaugarri metodologikoen artean aipatu beharreko beste bat honakoa da: neurtzen duguna, norbanakoaren hizkuntza baino, taldeko elkarriketa-hizkuntza dela. Kaleko erabileraz ari garela, elkarriketak dira behatzen eta zenbatzen ditugunak, eta elkarriketak beti dira bi lagun edo gehiagoren artekoak (ezinbestean). Ondorioz, talde batean elkarriketa bat behatzen dugunean, une horretan hizketan ari denaren hizkuntza hartzen dugu kontuan talde osoarentzat, suposatuz une horretan hizkuntza horretan ari badira, beste batean ere horrela ariko direla, eta aldi berean suposatuz taldeko hiztun hori izan beharrean beste bat balitz hizketan ari dena, neurtu dugun hizkuntza berean egingo lukeela.

Kale-erabileraren neurketa izanik, hiztun-talde bakoitza une labur batean baino ez dugu behatzen eta ondorioz metodologia honekin ezin dugu taldeko kide bakoitzaren jokaera ezagutu. Dena den, hau horrela egiteko oinarri metodologikoak sendoak dira. Klean behatzen ditugun hiztun taldeek hizkuntza jokaera finkatua izaten dute eta hau oso gutxitan aldatzen da. Neurtzen ditugunak kasurik gehienetan lagunak, familia berekoak edota hurbilekoak izaten dira. Kasu hauetan, Euskal Herrian behatu ahal izan diren hizkuntza-ohituren arabera, erabakita egoten da —inkontzienteki bada ere— zein hizkuntzatan izango den elkarriketa.

Euskara ez dakitenen kasuan erabaki hori automatikoa da (gaztelaniaz edo frantsesez, alegia). Eta dakitenen artean, pertsona bat ezagutu eta denbora gutxira finkatu ohi da berarekin zein hizkuntza erabili. Talde batean ere antzera gertatzen da: hiztun jakin batzuen artean hizkuntza jakin bat hautatzen da eta aurrerantzean hiztun horien arteko elkarriketak kasurik gehien-gehienetan hizkuntza horretan izango dira. Jakin badakigu hizkuntza-ohiturak aldatu ere egiten direla baina aldaketa ez da “berez” edo modu erraz batean gertatzen, eta hain zuzen aldagaiztasun horrek, hiztun jakinen arteko hizkuntza-ohiturak, oro har, egonkor izatea dakar.

Fitxak

2011ko neurketa honetan erabilera datuak fitxa bakarrean jaso ditugu. Fitxa honen bidez, erabilera zenbatekoa den jakiteaz gain, ondorengo hiru aldagai



hauek euskararen erabileran duten eragina neurtzeko aukera izan dugu: sexuaren eragina, haurren presentzia eta neurtzen dugun taldearen adin-osaketa. Neurraldi guztietan fitxa berdina erabili da.

Ikus ondoren fitxa horien irudiak:

HIZKUNTZA ERABILERAREN KALE NEURKETA

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
 T: 943 592 556
 klusterra@soziolinguistika.org

HERRIA: _____

IBILBIDEA: _____

EGUNA: _____ ORDUA: _____

NEURTZAILEAK: _____

	EUSKARA	GAZTELERA FRANSESERA (ipar EH)	BESTERIK	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak	Haurrak hitz egiten	
				(2-14 urte)	(15-24 urte)	(24-64 urte)	(65-... urte)	BAI	EZ
01									
02									
03									
04									
05									
06									
07									
08									
09									
10									
11									
12									
13									
14									
15									
16									
17									
18									
19									
20									

Emakumezkoa

Gizonezkoa

- 001 -

OHARRAK: _____

	EUSKARA	GAZTEKERA FRANZESA (100% EH)	BESTERIK	Haurrak (2-14 urte)	Gazteak (15-24 urte)	Helduak (24-64 urte)	Adinekoak (65-... urte)	Haurrak hitz egiten	
								BAI	EZ
21	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
22	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
23	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
24	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
25	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
26	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
27	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
28	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
29	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
30	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
31	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
32	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
33	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
34	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
35	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
36	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
37	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
38	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
39	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
40	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
41	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
42	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐

☐ Emakumezkoa ☐ Gizonezkoa

Aipatutako aldagai horiek hizkuntza-erabileran suposatzen duten baldintzapenaren neurri bat atera dezakegu, esan bezala, hiztunen ezaugarriak jasotzeko aukera ematen digun fitxaren bidez.

“Gernikarren eta lumotarren” erabilera baino gehiago, Gernika-Lumoko kaleetakoa

Muga metodologikoak tarteko, ezin dugu erabateko ziurtasunez esan neurketa honetan jasotakoa Gernika-Lumoko biztanleen (gernikarren eta lumotarren) erabilera denik. Horren orde, zuzenagoa da esatea Gernika-Lumoko kaleetan jaso dugun erabilera dela hemen aurkezten duguna. Izan ere, ezin dugu ziurtatu kalean neurtzen ditugun hiztun guztiak herrikoak direnik.

Bestalde, kale-erabileraren neurketa egitean neurtzen ditugun hiztunak ez dira beti berdinak, eta ezin dugu aurreikusi kalean noiz norekin topo egingo dugun. Ondorioz, jasotako datuak adierazgarriak izanik ere, aztergai dugun aldagaia —euskararen kale-erabilera, alegia— neurri txiki batean aldagarria da. Horregatik da, besteak beste, bereziki interesgarria maiztasun jakin batekin neurketak egin eta joera nagusiei erreparatzea. Edonola ere, erabilitako metodologiak bermea ematen digu neurketa bakoitzaren emaitzetatik zenbait ondorio orokor ateratzeko.

Adierazgarritasuna

Esan bezala hainbat aldagaik erabileran duen eragina aztertu dugu neurketan: adina, haurren presentzia, eta sexua, besteak beste. Neurraldi guztietan hiztunaren adina jaso dugu; baita hiztuna hurrekin dagoen ala ez eta hiztunaren sexua ere.

Emaitzak aztertzerakoan laginaren tamaina izango dugu kontuan, laginak gutxieneko kopuru bat bete beharko du aldagai horren eragina aztertu ahal izateko. Izan ere, aldagaia zenbat eta zehatzagoa izan, lagina txikiagoa izango da eta datuek adierazgarritasuna galduko dute. Esaterako, behatutako hiztunen adina taldeka banatzeko behar besteko lagina (neurtutako pertsona kopurua) izango dugu, baina adin-talde bakoitzean sexuaren arabera azterketa egiteko ez, aldagai bat zenbat eta gehiago deskonposatu, orduan eta lagin txikiagoa baitugu emaitzen irakurketa egiteko.

Oharrak

Eta atal honi amaiera emateko, ikus ondoren datu-bilketarako neurtzaileek eskura izan dituzten ohar-orriak:





HIZKUNTZA ERABILERAREN KALE NEURKETA

Zer neurtu behar da?

Kalean, eta soilik **kalean dabilen jendearen arteko hizkuntza erabilera**. Leku itxiak beraz (tabernak, dendak, kiroldegia, etxeak, lantegiak, garraioak, edonolako lokalak,...), neurketa honetatik kanpo geratuko dira.

Neurtzaileak

Neurketa **bikoteka** egingo da. Pertsona bakar batek ere egin lezake, baina ego-kiagoa da neurtzaileak binaka aritzea. Izan ere,

- Errazagoa da. Batek jendeari entzun eta besteari zer apuntatu behar duen esan diezaiola.
- Biren artean askoz hobeto disimulatzen da, eta oso inportantea da saiatzea inor ez dadin konturatu neurketa egiten ari garela. Gainerakoan, jendearen jokabide naturalak alda daitezke; isilduz, hizkuntzaz aldatuz, haserretuz,...

Neurketa, ez inkesta

Kalean goazela jendeari ez zaio galdetu behar normalean zein hizkuntzatan hitz egiten duen edo une horretan zein hizkuntzatan ari den mintzatzen. **Ez galdetu, entzun** egin behar dugu eta entzuten dugun hizkuntza jaso, jendeari ezer esan gabe. Gure helburua kaleko hizkuntza-errealitatea bere horretan jostzea da, ahalik eta modurik objektiboenean. Kalean doazenek ez dute jakin behar neurketa egiten ari garenik.

Ibilbidea

Bikote bakoitzak **ibilbide jakin bat** izango du (koadernoaren atzealdean jaso da ibilbidearen mapa, kaleen izenak, neurketa egunak eta orduak). Ibilbidea herriko kalerik jendetsuenek osatuko dute, normalean erdiguneak (erdigunea zentzu zabalean ulertuta): erosketa-kaleak, poteo kaleak, haur jolas-lekuak, pasealeku eta parkeak, etab. Ibilbideak hasi eta bukatu leku berean egin beharko du, bikoteak behar bezainbat aldiz egin ahal izateko ibilbide hori, neurraldi bakoitzak irauten dituen bi ordu horietan.

Bikote bakoitza bere ibilbidean paseatzen ibiliko da. Ez dago arazorik noizbehinka eserlekuren batean eserita neurketa egiteko, eta batzuetan gainera, disimulatze-ko beharrezkoa ere izango da. Baina eserita denbora gehiegi ematea ere ez da komeni. Izan ere, helburua neurketa ibilbide guztian zehar egitea da.





HIZKUNTZA ERABILERAREN KALE NEURKETA



Datuak nola jaso

Datuak orri berezietan jasoko dira (ikus beheko fitxa-orria). **Elkarrizketa bakoitza errenkada batean adieraziko da**, eta lau datu hartuko dira kontuan:

1. **Hizkuntza:** "Euskara", "gaztelera/frantsesa (Ipar EH)" eta "besterik" (beste hizkuntzak). Hego Euskal Herrian euskara edo gaztelera ez den beste hizkuntza bat entzuten badugu "besterik" zutabearen adieraziko dugu. Eta gauza bera egingo dugu, Ipar Euskal Herrian euskara edo frantsesa ez diren beste hizkuntzekin.
2. **Adin taldea:** "Haurrak (2-14 urte bitartekoak)", "gazteak (15-24 urte)", "helduak (25-64 urte)" eta "adinekoak (65 urtetik gorakoak)". Jendeak zein adin izango duen sumatzea neurtzaileen egitekoa izango da, eta gutxi gorabehera egin beharrekoa da.
3. **Generoa:** Mintzakideen sexua jasoko dugu, "emakumezkoa" ala "gizonezkoa" den.
4. Azkenik, **haurrek hitz egiten dutela** jasoko dugu, hau da, elkarrizketa entzuten dugun unean 2-14 urte bitarteko haurrak hitzun aktiboak diren "bai" ala "ez".

Neurketa nola egiten den azaltzeko **HIRU ADIBIDE** jarriko ditugu:

- Bi haur (neska bat eta mutil bat) badoaz euskaraz hitz egiten (**01 elkarrizketa**):
 1. Euskaraz **laukian** "X" markatu.
 2. Haurren zutabearen, emakumezkoen **laukian** "1" adierazi eta gizonezkoen **laukian** beste "1" adierazi.
 3. "Haurrak hitz egiten" zutabearen "bai" **laukian** "X" markatu.
- Senar-emazteak gaztekeraz hitz egiten ari dira haien artean (Ipar Euskal Herrian frantsesez), 5 urteko alaba eta 16 urteko semea beraiekin doaz baina hitz egin gabe (**02 elkarrizketa**):
 1. Gaztekeraz **laukian** "X" markatu.
 2. Haurren zutabearen emakumezkoen **laukian** "1" adierazi; gazteen zutabearen gizonezkoen **laukian** "1"; eta helduen zutabearen emakumezkoen **laukian** "1" eta gizonezkoen **laukian** beste "1" markatu.
 3. Haurrak hitz egiten zutabearen "ez" **laukian** "X" seinalatu.
- Bost gazte, bi neska eta hiru mutil, gaztekeraz ari dira (**03 elkarrizketa**):
 1. Gaztekeraz **laukian** "X" markatu.
 2. Gazteen zutabearen emakumezkoen **laukian** "2" eta gizonezkoen **laukian** "3" adierazi.
 3. Haurrak hitz egiten zutabearen "ez" **laukian** "X" markatu.





HIZKUNTZA ERABILERAREN KALE NEURKETA

Oharrak:

- Azalpena merezi duen puntua da hau: **lau lagun elkarrekin doazenean normalean bat entzungo** dugu hizketan eta beste hirurak entzule izango dira (arreta gehiago edo gutxiago jarriaz, guri hori ez zaigu axola). Kasu horretan **guk fitxa-orrian lau lagun entzun ditugula jarriko dugu.**
- Neurketak irauten duen denboran **ahalik eta elkarrizketa** gehien entzungo ditugu, eta ahalik eta fitxa-orri gehien beteko ditugu.
- **Neurraldia hastean** fitxa-orri berri bat hasiko dugu, eta fitxaren goialdean agertzen diren datuak beteko ditugu neurraldiari dagokion ibilbidea, eguna eta ordua adieraziz.
- **Ibilbidean zehar** pertsona bera **neurraldi eta elkarrizketa berean** ez dugu behin baino gehiagotan neurtuko. Alegia, pertsona bera jende berearekin eta hizkuntza berean entzuten badugu, behin bakarrik jasoko dugu. **Aldiz, taldean** partaideren bat aldatzen bada (nor bait etorri edo nor bait joan) edo taldeak hizkuntza aldatzen badu (mintzakideak aldatu ez arren), hori gertaera ezberdina izango da, eta beraz, jaso egingo dugu.
- **Elkarrizketa elebidunetan** (batek euskaraz hitz egin eta besteak gazteleraz erantzuten dutenean, edo alderantziz) bi aldiz jasoko dugu elkarrizketa, bata euskaraz eta bestea gazteleraz. Ondoren bi elkarrizketak lotuko ditugu gezi batez. Ikus aurreko fitxa ereduaren 04 eta 05 elkarrizketak (Adibidea: bi agure hitz egiten ari dira, bata euskaraz ari da eta besteak gazteleraz erantzuten dio).
- **Neurtzaileekin** hitz egiten dutenei ez zaie neurtuko.
- **Dudazko kasuak ez jaso**, hau da, entzundako hizkuntza zein den ziur ez dakigunean, jaso gabe utzi.
- **Inoiz ez dugu galderarik egingo, ez galdetu ezer:** ez zein adin duen, ez zein hizkuntza erabili ohi duen, ez une horretan zein hizkuntzatan ari den mintzatzen... Ez da ezer galdetu behar, ez baikara inkesta bat egiten ari; gurea behaketa bidezko neurketa denez, entzundakoa jaso behar dugu.
- Fitxa-orriaren atzealdean **oharrak** idazteko tarte dago, neurketan zehar gerta daitezkeen ezustekoak, neurtzailearen zalantzak edota bestelako informazio interesgarria jasotzeko.
- **Azken oharra:** Euskara gutxi entzutea gogorra izan arren, **beti egia jarri.** Ikurketa hau **euskararen egoera ezagutzeko tresna oso garrantzitsua** da eta errealitatea egiazki nolakoa den jakitea interesatzen zaigu. Honetan, mesedez, zorrotzak izan.



2.2 ‘Gernika-Lumo 2011’ neurketaren fitxa teknikoa

Prozedurak

Aurreko puntuan, *Euskal Herriko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa* egiteko metodologia azaldu dugu zehatz-mehatz. Hor adierazitako xehetasun guztiak baliagarriak dira *Gernika-Lumoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketaren* berri emateko ere. Ez ditugu, hortaz, errepikatuko.

Ibilbideak

Arestian aurreratu dugun moduan, ibilbide bakoitzaren nondik norakoa zehazterakoan eta definitzerakoan, herriko kalerik jendetsuenak biltzea izan da irizpide nagusia: plaza inguruak, parkeak, geltokiak, salerosketa-kaleak, eta abar. Ibilbidearekin batera, neurketa egiteko egunak eta orduak ere zehaztu ditugu, eta horiek hautatzean, herriko biztanle guztiak (potentzialki, behintzat) neurtu ahal izatea izan da gure helburua; alegia, hautatutako egun eta orduetan herritar guztiek edukitzea neurtuak izateko aukera.

Irizpide horiekin, 2011ko *Gernika-Lumoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa* egiteko sei ibilbide nagusi antolatu ditugu Gernika-Lumon:

- **1. ibilbidea. Erdialdea:** San Juan Ibarra, Don Tello, San Roke, Barrenkale, Artekale, Pablo Picasso, Arrien Pasealekua, Juan Kaltzada, Alhondiga eta industrialdea.
- **2. ibilbidea. Lurgorri:** Gurutze Gorria, Juan Kaltzada (Bengoetxe, Zallo Barri, Eguzki), San Kristobal plaza, monopatin gunea, Mestikabaso, Urremendi, Rotonda eta autobus geltokia.
- **3. ibilbidea. Erreterria/Lorategieta:** San Bartolome, Hurrengo Errota, Erreka Zaharra, Kalekotxu -plaza txikia-, Merzede, Uharte eta Zubia.
- **4. ibilbidea:** Allende Salazar ikastetxea, Mestikabaso, San Frantzisko Parrokiaren ingurua.

- **5. ibilbidea:** Merkatu plaza, Urkieta kalea, Carlos Gangoiti, eta Gernikako Institutua.
- **6. ibilbidea:** Seber Altube ikastola, Europako Parkea, Allende Salazar ikastetxea, Mestikabaso, San Frantzisko Parrokiaren ingurua.

Lehenengo hiru ibilbideen datuen baturek udalerriko errealitatearen berri emango digute (Erdialdea, Lurgorri eta Errenteria/Lorategieta). Gainontzeko ibilbideak (4.ibilbideak, 5. Ibilbideak, eta 6 ibilbideak) herriko ikastetxe inguruak biltzen dituzte, eta banaka aztertuko ditugu 6. atalean.

Landa-lana

Landa-lanari dagokionez, 2011ko irailaren 21a eta azaroaren 12a bitartean egin dugu, honako koadro honetan azaltzen diren neurraldi eta ordutegietan:

Lurraldea: Bizkaia		BIKOTE ZENBAKIA: 31	
Ibilbidea Non		Datak	Ordutegia
1. ibilbideaErdialdea			
Ibilbide-mota	BEREZIA	Irailak 21, asteazkena	18:00-20:00
		Irailak 24, larunbata	11:00-13:00 eta 18:00-20:00
2 ibilbidea.Lurgorri			
Ibilbide-mota	BEREZIA	Irailak 28, asteazkena	18:00-20:00
		Azaroak 5, larunbata	18:00-20:00
		Azaroak 12, larunbata	11:00-13:00
3.ibilbidea. Errenteria/Lorategieta			
Ibilbide-mota	BEREZIA	Urriak 5, asteazkena	18:00-20:00
		Urriak 8, larunbata	11:00-13:00 eta 18:00-20:00
4.ibilbidea			
Ibilbide-mota	BEREZIA	Urriak 17, astelehena	13:00-15:30 eta 16:00-18:00
5.ibilbidea			
Ibilbide-mota	BEREZIA	Urriak 24, astelehena	13:00-15:30 eta 16:00-18:00
6.ibilbidea			
Ibilbide-mota	BEREZIA	Azaroak 7, astelehena	13:00-15:30 eta 16:00-18:00
NEURKETA-ORDUAK:			31,5


Mapak

Ikus ondoren ibilbideen nondik norakoak errazteko Gernika-Lumon erabilitako mapak:




IBILBIDEA:

GERNIKA_1




IBILBIDEA:

GERNIKA_2




IBILBIDEA:

GERNIKA_3




IBILBIDEA:

GERNIKA_4




IBILBIDEA:

GERNIKA_5



IBILBIDEA:

GERNIKA_6



Unibertsoa, lagina eta emaitzen adierazgarritasuna

UNIBERTSOA: Gernika-Lumoko kaleetan entzun daitezkeen elkarrizketak.

LAGINA: behaketa egin dugun bitartean, behatu ditugun 2.076 elkarrizketek eta horietan solaskide izan diren 6.098 herritarrek osatu dute lagin osoa. Udalerriko emaitzak lehenengo hiru ibilbideetan jasotako datuekin kalkulatu ditugu. Udalerrri ordezkatzeko duten hiru ibilbide horietan 1.438 elkarrizketa eta 4.341 pertsona behatu ditugu. Lagin horren arabera kalkulatu dugu akats-tartea.

AKATS-TARTEAREN KALKULUA (erabat ausazkoak diren laginketei egozgarria): $\pm 2,6$ koa elkarrizketen lagin osoarentzat, %95,0ko konfiantza mailan, eta $p=48,9$ izanik (behatutako elkarrizketen artean euskarazkoek osatu duten ehunekoa).


3 ERABILERA GERNIKA-LUMON, 2011. URTEAN: EMAITZA OROKORRA

3.1 Elkarriketen erdiak baino gehixeago euskaraz Gernika-Lumon

Gernika-Lumoko kaleetan entzundako elkarriketen ia erdia, %48,9 zehatzago esateko, euskaraz izan dira. Gainerakoak gaztelaniaz izan dira nagusiki (%45,2), eta badira beste hizkuntza batzuetan gertatzen direnak ere (%5,9, 2011ko urrian egindako neurketaren arabera).

A. GRAFIKOA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA. GERNIKA-LUMO, 2011 (%)

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Gernika-Lumoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2011.



Horixe da 2011ko udazkenean Gernika-Lumoko herrian egindako neurketaren emaitza nagusia. Neurketa nola egin dugun (erabilitako metodoa, alegia) zehatz-mehatz azaldu dugu txosten honetako 2. atalean. Gogora dezagun, besterik gabe, 1.438 elkarrizketa behatu ditugula udalerrria ordezkatzeko duten hiru ibilbideetan, eta 4.341 lagun izan direla guztira elkarrizketa horietako solaskide. Ikerketa sozialean erabili ohi diren parametroetan, kopuru handia da hori 16.442 biztanle dituen herri batentzat¹. Termino estatistikoetan, esan dezakegu euskarazko elkarrizketen %48,9ko datu horri $\pm 2,6$ ko akats-tartea dagokiola, %95,0ko konfiantza mailan, unibertso osoaz hitz egiterakoan². Oinarri sendoa dugu, beraz, herritarren hizkuntza-portaerak deskribatzeko.

1. TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA. GERNIKA-LUMO, 2011

	Kop.	(%)
Euskaraz	2.125	48,9
Gaztelaniaz	1.961	45,2
Beste hizkuntzetan	255	5,9
GUZTIRA	4.341	100,0

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Gernika-Lumoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2011.

¹ Iturria: INE, udal-errola 2011 (urtarrilak 1).

² Hizkuntzen erabileren kale-neurketetarako **Soziolinguistika Klusterrak** berariaz landutako eredu matematikoaren emaitza (ikus <http://www.soziolinguistika.org/eu/lagina/eskaera/kale-erabilera>).

3.2 Erabilerarena testuinguratzeko bi datu garrantzitsu: herritarren hizkuntza-gaitasuna eta hortik espero daitekeen erabilera maila

Ehuneko 48,9koa da, hortaz, euskararen erabilera³ Gernika-Lumon. Hori asko den edo gutxi den hausnartzeko, ezinbestekoa iruditzen zaigu, ezer baino lehen, beste bi datu aintzat hartzea: herrian euskaraz hitz egiteko gai direnen kopurua batetik (euskaldunen kopurua, alegia) eta euskaldun kopuru horretatik “espero daitekeen erabilera” bestetik. Jarraian aurkeztuko ditugu datuok.


Gernikarren eta lumotarren hizkuntza-gaitasuna

EUSTATEk 2006. urtean egindako *Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistikaren* arabera, hiztunen bi herenak, %67,9 zehatz esanda, euskaldunak ziren Gernika-Lumon. Ia bostetik batek (%17,9), euskalduna izan gabe, bazuen euskararen nolabaiteko ezagutza bat, ulermen mailan,

³ Berez, zentzu hertsian, “kale-erabileraz” hitz egin beharko genuke. Azalpena arintzearren, ordea, “erabilera” terminoa erabiliko dugu. Izan ohar hau kontuan txosten osorako.

behintzat, eta gainerako %14,3ak erdaldunak ziren⁴, euskara ulertu ez eta hitz egiten ere batere ez zekitenak. Horiek dira Gernika-Lumoko herritarren hizkuntza-gaitasunari buruz argitaratu diren daturik berrienak. 2011n antzeko operazio estatistiko bat egin du EUSTATEk, baina datu horiek ez dira oraindik argitaratu.

B. GRAFIKOA: EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNA. GERNIKA-LUMO, 2006 (%)



Iturria: EUSTAT, *Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika*, 2006.

⁴ Kategoria horiek euskararen jakite mailari buruz egiten diren lau galderei (ulertzen duzu?, hitz egiten duzu?, irakurtzen duzu?, eta idazten duzu?) erantzundakoaren arabera lortu dira. Aukeran ematen diren erantzunak (ezer ez, nekez, eta ondo) konbinatuz, zazpi hiztun-kategoria sortzen dira, eta zazpi horiek bilduz, guk aurkeztutako hirurak.

		ULERTU	HITZ EGIN	IRAKURRI	IDATZI
EUSKALDUNAK	ALFABETATUAK	Ondo	Ondo	Ondo	Ondo
	ERDI-ALFABETATUAK	Ondo	Ondo	Nekez	Nekez
	ALFABETATUGABEAK	Ondo	Ondo	Ez	Ez
IA EUSKALDUNAK	ALFABETATUAK	Ondo/ Nekez	Nekez	Ondo/ Nekez	Ondo/ Nekez
	ALFABETATUGABEAK	Ondo/ Nekez	Nekez	Ez	Ez
	PASIBOAK	Ondo/ Nekez	Ez	Ez	Ez
ERDALDUNAK		Ez	Ez	Ez	Ez

Espero daitekeen euskararen erabilera

Zer-nolako harremana dago ezagutzaren eta erabileraren artean? Gure kasuan: Gernika-Lumon neurtutako erabilera (%48,9 euskaraz) zer da, handia edo txikia, bertako herritarren artean euskaldunek osatzen duten portzentajea kontuan hartuta? (esan bezala, %67,9 ziren euskaldunak 2006an).

Galdera horri erantzuten laguntzeko, bere garaian J.L. Alvarez Enparantza *Txillardegi* eredu matematiko bat garatu zuen⁵. Eredu horretan, gune jakin batean dauden euskaldunen proportziotik abiatuta, euskararen erabilerari buruzko kalkulu bat egiten du. Zehazki, zera adierazten du eredu horrek: eremu jakin batean, bertan dauden euskaldun guztiak euskararekiko leial izanez gero (hots, euskalduna euskaldunarekin ahal duen guzti-guztietan euskaraz mintzatuz gero), eta herritarren harremanak guztiz ausazkoak izanez gero (egoera isotropikoa), zenbatekoa izango litzatekeen euskararen erabilera. Kopuru horri “espero daitekeen erabilera” (edo “erabilera isotropikoa”) esan izan zaio; hots, baldintza teoriko horiek betez gero, erabilera zenbatekoa izango litzatekeen. Eta honako formularen bidez kalkulatzen da:

⁵ Gaian sakontzeko ikus Alvarez Enparantza, J. L., Txillardegi, 2001, *Hacia una Socio-Lingüística Matemática*. Donostia: Euskal Soziolinguistika Institutua Sortzen; Isasi, X eta Iriarte, A, 2002, *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 54-68 orr.

$$P_B = m_B (w_2 e_x^2 + w_3 e_x^3 + w_4 e_x^4)$$

P_B = euskararen erabilera maila
 m_B = euskararekiko leialtasuna
 e_x = elebidunen proportzioa
 w_2 = bikoteen pisua
 w_3 = hirukoteen pisua
 w_4 = laukoteen pisua

Aplika dezagun formula hori Gernika-Lumoko errealitatera.


$$P_B = 1,0 \cdot (0,60 \cdot 0,679^2 + 0,22 \cdot 0,679^3 + 0,18 \cdot 0,679^4) = 0,384 = \%38,4$$

Kalkuluak eginda, hortaz, Gernika-Lumorako %38,4koa da baldintza horietan “espero daitekeen erabilera”. Hortaz, Gernika-Lumoko biztanleen arteko zorizko harreman posibleetan, eta euskaldunek euskaldunekin beti euskaraz jardunez gero, %38,4koa da espero daitekeen euskararen erabilera.

3.3 Euskararen erabilera Gernika-Lumon, hizkuntza-gaitasuna eta espero daitekeen erabilera aintzat hartuta

Jar ditzagun taula batean eta irudikatu ditzagun grafiko batean orain arte aipatu ditugun hiru datu nagusi horiek:

C. GRAFIKOA: EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNA, HORREN ARABERA ESPERO DAITEKEEN ERABILERA ETA EUSKARAREN KALE-ERABILERA ERREALA GERNIKA-LUMON, 2011 (%)



Iturriak: Soziolinguistika Klusterra, Gernika-Lumoko hizkuntza-erabilaren kale-neurketa, 2011; EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika, 2006.

2. TAULA: EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNA, HORREN ARABERA ESPERO DAITEKEEN ERABILERA ETA EUSKARAREN KALE-ERABILERA ERREALA GERNIKA-LUMON, 2011

Oinarria (kasu kopurua):		
Hizkuntza-gaitasuna, 2006 (euskaldunen %a)	67,9	Hiztunak: 15.547
Erabilera erreal 2011	48,9	Behatutako solaskideak: 4.341
Espero daitekeen erabilera, 2006 (kalkulua)	38,4	Hiztunak: 15.547

Iturriak: Soziolinguistika Klusterra, Gernika-Lumoko hizkuntza-erabilaren kale-neurketa, 2011; EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika, 2006.

Taulan eta grafikoan ikus daitekeen bezala, euskararen erabilera apalagoa da Gernika-Lumon, ezagutza baino. Zehazki, elebidunen kopuruaren (%67,9) azpitik gelditzen da euskararen erabilera (%48,9). Lehen begiratu batean eman dezake euskara gutxi erabiltzen dela Gernika-Lumon, euskaraz hitz egiteko gai direnen kopuruarekin alderatuta, betiere. Ezagutzaren eta erabileraren arteko tarte hori handia dela, alegia. Baina erabileraren eta ezagutzaren portzentajeak zuzenean alderatzetik ateratzen diren ondorioak, sarri, okerrak izaten dira, ia ezinezkoa baita erabilera- eta ezagutza-datuak bat etortzea. Kontuan izan behar dugu ia kasu guztietan euskaldunak gaztelaniadunak ere badirela (euskaldun elebakarrak haurren artean soilik topa daitezke), eta hizkuntza bat zein bestea erabil dezaketela. Eta, jakina, euskaraz hitz egiteko gai ez den mintzakidearekin beti hitz egingo dute gaztelaniaz; mintzakide elebidunarekin, berriz, euskaraz edo gaztelaniaz hitz egin ahal izango dute. Beraz, ezinezkoa da euskararen erabilera ezagutzaren mailakoa izatea. Hori horrela izan dadin (erabilera eta ezagutza bat etor daitezen), bi baldintza bete beharko lirateke: euskaldunek inolako harremanik ez izatea euskaldun ez direnekin, eta euskaldunen artean ere euskara besterik ez erabiltzea. Horrela, Gernika-Lumoko kasuan bi kopuru horien artean ageri den aldea, oro har, bat dator Euskal Herriko zonalde eta udalerri gehienetan izaten den aldearekin.

Aintzat hartzeko beste erreferentzia baldintza isotropikoetan euskaldunek leial jokatz gero “espero daitekeen erabilera” dugu. Kopuru hori %38,4koa da Gernika-Lumon. Horren argitara, handia da Gernika-Lumon euskararen erabilera, erabilera errealak (%48,9) aisa gaingitzen baitu baldintza isotropikoetan espero daitekeen erabilera.

Dena den, ezin dugu ahaztu honako hau erreferentzia teorikoa dela eta jakin badakigula harreman-sareak ez direla ausazkoak izaten. Hots, edonork ez duela edonorekin harremanik izaten (harreman gehiago dugu gure

ingurukoekin eta adin berekoekin, adibidez, eta herriko zenbaitekin ez dugu inoiz harremanik izaten). Era berean, badakigu euskaldunen leialtasuna ez dela %100ekoa izaten, eta euskara dakitenen arteko elkarrizketak ez direla beti euskaraz izaten.

Horiek guztiak horrela izanik, erabilera erreala “espero zitekeena” baino handiagoa izateak, zeharka, zera adierazi nahiko luke: herriko euskaldunak nahiko trinkoturik bizi direla, eta euren arteko harreman-sarea nahiko bizia eta aberatsa dela. Horrela, egunerokoan euskaldunek erdaldunekin erlazio gutxiago izaki, euskararen erabilera estatistikoki espero den baino handiagoa da. Horretaz gain, euskaldunen leialtasunaren nolabaiteko seinale ere bada datu hori.

4 ERABILERAREN BILAKAERA GERNIKA-LUMON (1989-2011)


4.1 Euskararen erabilerak zertxobait behera egin du Gernika-Lumon azken 10 urteotan

Azken mende laurdenean hainbat ikerketa egin izan dira Gernika-Lumon hizkuntzen kale-erabilera neurtzeko. 2011. urtean egindakoarekin batera, 2001. eta 2006. urteetakoak dira berariaz udalerriko hizkuntza-erabilera neurtzeko egindako bakarrak. Hiru horiek ditugu, 2001ekoa, 2006koa eta 2011koa, datu-bilketarako diseinu homogeneoa eta oinarri estatistiko sendoa duten bakarrak eta, horregatik, alderaketak taxuz egiteko modua ematen diguten bakarrak. Horiek ditugu, halaber, Gernika-Lumoko udalerrri osoko erabileraren berri eman ahal diguten neurketa bakarrak.

Hiru ikerketa horiez gain, ordea, *Euskal Herriko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa* egin izan den aldiro, Gernika-Lumon ere behatu izan dira bertako erdiguneko kaleak, eta, ondorioz, oinarri estatistiko ahulagoarekin baldin bada ere, baditugu 1989., 1993. eta 1997. urteetako datuak ere. Horiek horrela, azken 22 urteotako seriea osa dezakegu Gernika-Lumoko erdigunerako.

Neurketa horietako guztietako emaitza nagusiak 3. taulan eta D. grafikoan aurkeztu ditugu. Datu sendoenen interpretaziotik hasita, esan dezakegu euskararen erabilera azken hamar urteotan zertxobait jaitsi dela: euskararen erabilera %54,3tik %51,5era jaitsi zen udalerrian 2001-2006 tartean, eta bost urte beranduago beherakada apala izan du berriro (%48,9koa da erabilera, azken neurketaren arabera).

D. GRAFIKOA: EUSKARAREN KALE-ERABILERAREN BILAKAERA. GERNIKA-LUMO, 1989-2011 (%)



Iturriak: 1989., 1993. eta 1997. urteetako datuak *Euskal Herriko Hizkuntza-erabileraren kale-neurketa* ikerketatik eskuratu ditugu. Gernika-Lumoko datuak berariaz ustiatu ditugu. Hiru neurketa hauek **EKBk** egin zituen. 2001., 2006. eta 2011. urteetako datuak Udalaren eskariz egindako *Gernika-Lumoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketetatik* hartu ditugu. **SEIk** egin zuen 2001ekoa eta **Soziolinguistika Klusterrak** 2006 eta 2011koa.

Oinarri ahulagoa baldin badute ere, denbora-serieko gainerako datuak ere aztertuta, bi aldi ageri zaizkigu nahiko argi bilakaera orokorrean: 1997-2001 aldian igo egin zen nabarmen euskararen erabilera Gernika-Lumoko erdiguneko kaleetan, %34,8tik %57,2ra, hain zuzen. Hizkuntza-portaerak

gauetik goizera aldatzen ez direla kontuan hartuta, ez da aldaketa txikia 1997-2001 tartean Gernika-Lumoko erdiguneko kaleetan jazo dena. Hortik aurrera, ordea, eta arestian esan bezala, jaitsi egin da euskararen erabilera Gernika-Lumoko udalerrian, erdiguneko kaleetan, bereziki.

3. TAULA: EUSKARAREN KALE-ERABILERAREN BILAKAERA. GERNIKA-LUMO, 1989-2011

	Erdigunea	Oinarria (behatutako solaskideak)	Gernika-Lumo Udalerria	Oinarria (behatutako solaskideak)
	(%)	Kop.	(%)	Kop.
1989	34,8	-		
1993	34,3	(2.125)		
1997	42,9	(1.621)		
2001	57,2	(1.324)	54,3	(2.390)
2006	52,5	(1.127)	51,5	(3.440)
2011	47,2	(2.356)	48,9	(4.341)

Iturriak: 1989., 1993. eta 1997. urteetako datuak *Euskal Herriko Hizkuntza-erabileraren kale-neurketa* ikerketatik eskuratu ditugu. Gernika-Lumoko datuak berariaz ustiatu ditugu. Hiru neurketa hauek EKBk egin zituen. 2001., 2006. eta 2011. urteetako datuak Udalaren eskariz egindako *Gernika-Lumoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketetatik* hartu ditugu. SEIk egin zuen 2001ekoa eta **Soziolinguistika Klusterrak** 2006 eta 2011koa.


Oharra: ez dugu 1989. urteko neurketan behatutako solaskideen kopururik.

4.2 Erabileraren eta ezagutzaren bilakaerak

Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera

Euskara erabiltzeko ezinbesteko baldintza euskaraz jakitea izanik, ikus dezagun euskararen bilakaerak zer datu ematen dituen Gernika-Lumon, ezagutzaren bilakaeraren argitara. Herritarren hizkuntza-gaitasunari buruzko datuak honako taula eta grafikoetan aurkeztuko ditugu, hasi 1986. urtetik eta 2006. urtea bitartekoak.

E. GRAFIKOA: EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNAREN BILAKAERA. GERNIKA-LUMO, 1986-2006 (%)



Iturria: EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak eta Estatistikak.

Datuak irakurri aurretik, esan behar da seriea ez dela guztiz homogeneoa. Izan ere, 2006ko datuak eskuratzeko jarraitu zen metodologian aldaketa handiak gertatu ziren ordura arteko datu-bilketekin alderatuta. Aurrekoetan ez bezala, 2006koan informazioa biltzeko prozedura zuzenak askoz gutxiago erabili zituzten, eta nagusiki zeharkako iturriei baliatuz,

kalkuluetan oinarritutako sistema baten bidez sortu ziren hizkuntza-gaitasunari buruzko datuak. Horregatik, gure ustez, 2006ko datuak ezin dira zuzenean alderatu 2001a bitartekoekin. Hala eta guztiz, joera orokorrari antzemateko baliagarriak zaizkigu datu horiek.

Datuon irakurketa argia da: herritarren hizkuntza-gaitasunak gora egin du etenik gabe 1986-1996 tartean: euskaldunak %63,2 ziren 1986an eta %70,6 1996an. 1996-2006 tarten, ordea, behera egin du euskaldunen ehunekoak, %70,6 horretatik %67,9ra.

Erdaldun elebakarrak, berriz, %17,8tik %14,3ra jaitsi dira 1986-2006 epealdian. Ia euskaldunen taldearen pisua, azkenik, nahiko egonkor azaltzen zaigu 1986-2006 tartean. Aldaketak izan dira, hortaz, herritarren hizkuntza-gaitasunean. Laburtuz: geroz eta gutxiago dira erdaldun elebakarrak, eta elebidunen kopuruak, berriz, gora egin zuen 1986-1996 tartean, eta jaitsi egin da hortik aurrera.

4. TAULA: EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNAREN BILAKAERA. GERNIKA-LUMO, 1986-2006 (%)


	1986	1991	1996	2001	2006
	(kop.)	(kop.)	(kop.)	(kop.)	(kop.)
Euskaldunak	9.659	10.106	10.705	10.315	10.552
Ia euskaldunak	2.892	2.543	2.030	2.578	2.779
Erdaldunak	2.726	2.794	2.432	1.991	2.216
GUZTIAK	15.277	15.443	15.167	14.884	15.547
	(%)	(%)	(%)	(%)	(%)
Euskaldunak	63,2	65,4	70,6	69,3	67,9
Ia euskaldunak	18,9	16,5	13,4	17,3	17,9
Erdaldunak	17,8	18,1	16,0	13,4	14,3
GUZTIAK	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak eta Estatistikak.

Hizkuntza-gaitasunaren eta euskararen erabileraren bilakaera alderatua

Aurkeztu ditugu Gernika-Lumon euskararen erabilera eta ezagutza nola aldatu diren adierazten duten datuak. Orain aurkezten dugun grafikoan, bi datu-serie horiek hartu, eta elkarren ondoan jarri ditugu.

F. GRAFIKOA: EUSKARAZ DAKITENEN ETA EUSKARAREN KALE-ERABILERAREN BILAKAERA. GERNIKA-LUMO, 1986-2011 (%)



Iturriak: ezagutzarako, EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak eta Estatistikak. Erabilerarako, 1989., 1993., eta 1997. urteetako datuak Euskal Herriko Hizkuntza-erabileraren kale-neurketa ikerketatik eskuratu ditugu. Gernika-Lumoko datuak berariaz ustiatu ditugu. Hiru neurketa hauek EKBk egin zituen. 2001., 2006. eta 2011. urteetako datuak Udalen eskariz egindako Gernika-Lumoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketetatik hartu ditugu. SEIk egin zuen 2001ekoa eta Soziolinguistika Klusterrak 2006 eta 2011koa.

Ezagutza- eta erabilera-datuak batera aztertuta, baieztatu egiten da bi aldien ideia. Horrela, datuen argitara, betiere, badirudi XX. mendeko azkeneko urteetan gora egin zuela euskararen ezagutzak eta erabilerak Gernika-Lumon: euskaraz zekitenen kopurua %63,2tik %70,6ra igo zen 1986. urtetik 1996. urtera, eta erabilera (erdigunekoa), %35,8tik %57,2ra 1989tik 2001era. Datu batzuek eta besteek irudi koherente bat ematen

digute, non euskarak asko aurreratu baitzuen Gernika-Lumon, bai ezagutzan eta, batez ere, erabileran.


Hortik aurrera, ordea, bilakaera gelditu egin dela esan dezakegu, eta hori kasurik onenean. Horrela, euskaraz dakitenen kopurua jaitsi egin da, gutxi bada ere, 1996-2006 tartean: %70,6tik %67,9ra, hain zuzen, eta erabilerak ere, ikusi berri dugun bezala, behera egin du.

5 EUSKAL HERRIKO, HERRIALDEKO ETA ESKUALDEKO DATUEKIKO ALDERAKETA

5.1 Euskal Herriko, EAEko, Bizkaiko eta Gernika-Bermeoko datuekiko alderaketa


Oraingo grafikoan, 2011. urteko kale-neurketak hainbat lurralde-eremutan eman dituen emaitzak aurkeztuko ditugu. Ikus daitekeen bezala, Gernika-Lumoko kaleetan euskara gehiago erabiltzen da (%48,9), Gernika-Bermeo eskualdean baino (%42,4), eta zer esanik ez Bizkaian (%9,4), EAEn (%16,1) eta Euskal Herrian (%13,3) baino.

G. TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA. EUSKAL HERRIA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA, BIZKAIA, GERNIKA-BERMEO ETA GERNIKA-LUMO, 2011 (EUSKARAZ %)



Datu horiek apur bat testuinguratzeko, kontuan har dezagun eremu bakoitzeko herritarren hizkuntza-gaitasuna batetik eta hizkuntza-gaitasun horren arabera “espero daitekeen erabilera”. Datu horiek grafiko honetan aurkeztu ditugu. Ikus daitekeenez, Gernika-Lumoko udalerrian eta Gernika-Bermeo eskualdean askoz euskaldun gehiago daude, oro har, Bizkaian, EAEn eta Euskal Herrian baino. Horrekin batera, bi eremu horietan handiagoa da “espero daitekeen erabilera” eta handiagoa da, azkenik, erabilera erreala ere. Datuak, hortaz, logika baten barruan agertzen zaizkigu.

H. GRAFIKOA: HIZKUNTZA-GAITASUNA, ERABILERA ETA ESPERO DAITEKEEN ERABILERA. EUSKAL HERRIA, EAE, BIZKAIA, GERNIKA-BERMEO ETA GERNIKA-LUMO, 2011 (%)



Iturriak: erabilerarako, **Soziolinguistika Klusterra**, Gernika-Lumoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2011 eta Euskal Herriko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2011. Hizkuntza-gaitasunerako, **Soziolinguistika Klusterra**, Euskararen Datu Basea eta EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika, 2006.


Oharra: Euskal Herriko hizkuntza-gaitasunaren datua (eta espero daitekeen erabilerarena) 2001. urtekoak dira.

Testuinguru hurbileneko datuekin alderatuta, hots, eskualdeko datuekin alderatuta, ordea, azpimarratzeko moduko fenomeno batekin egiten dugu topo: bi eremuok (Gernika-Lumo udalerria eta Gernika-Bermeo eskualdea) hizkuntza-gaitasun aldetik (eta espero daitekeen erabileraren aldetik ere bai) maila bertsuan egonik (berez, apur bat gehiago dira euskaldunak eskualdean), euskararen erabilera erreala handiagoa da Gernika-Lumon, eskualdean baino. Eskualdeko erabilera “espero daitekeenaren” azpitik dago, eta Gernika-Lumokoak, berriz, erraz gainditzen du kopuru hori.

5.2 Inguruko hainbat herrirekiko alderaketa

Ikusi dugu, oro har, euskara gehiago erabiltzen dela Gernika-Lumon, aztertutako gainerako eremuetan baino. Eta arreta berezia eskaini diogu Gernika-Bermeo eskualdearekiko alderaketari. Aldera dezagun orain Gernika-Lumoko egoera eskualde horretako beste udalerri nagusikoarekin, hots, Bermeoko udalerrikoarekin.

I. GRAFIKOA: EZAGUTZA, ERABILERA ETA ESPERO DAITEKEEN ERABILERA. GERNIKA-LUMO ETA BERMEO, 2011 (%)



Iturriak: erabilerarako, Soziolinguistika Klusterra, Gernika-Lumoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2011 eta Euskal Herriko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2011. Hizkuntza-gaitasunerako, EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika, 2006.


Aurreko grafikoan ikus daitekeen bezala, hizkuntza-gaitasuna eta espero daitekeen erabilera kontuan hartuta, ez dira oso ezberdinak Gernika-Lumo eta Bermeo. Alde txiki bat badago, hala ere, Bermeon gehixeago dira-eta euskaldunak (%73,5) Gernika-Lumon baino (%67,9). Erabilera errealari

erreparatuz, ordea, eta berez logikak agintzen duenaren kontra, Gernika-Lumon dezente gehiago egiten da euskaraz Bermeon baino (%48,9 eta %36,6, hurrenez hurren). Bermeon, ohikoa ez den bezala, erabilera erreala baldintza isotropikoetan espero daitekeenaren azpitik gelditu da; bertako herritarrek zer-nolako hizkuntza-gaitasuna duten jakinda, apala da, inolako zalantzarik gabe, Bermeoko erabilera. Gernikako erabilera, ordea, parametro arruntagoetan agertzen zaigu: ezagutzaren azpitik eta baldintza isotropikoetan espero daitekeen erabileraren gainetik.

5.3 Bilakaeren alderaketa

Euskararen erabilera urteetan zehar eremu batzuetan eta besteetan nolakoa izan den aztertuz gero, hauxe litzateke lehen ondorioa: aztertutako epealdian, oro har, euskararen erabilera Euskal Herrian eta EAEn baino apalagoa izan da Bizkaian, eta horietan guztietan baino handiagoa izan da Gernika-Lumon, alde handiarekin, gainera.

J. GRAFIKOA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERAREN BILAKAERA. EUSKAL HERRIA, EAE, BIZKAIA, GERNIKA-LUMO, 1989-2011 (EUSKARAZ%)



Iturriak: Gernika-Lumora 2001., 2006. eta 2011. urteetako datuak Udaltzailearen eskariz egindako *Gernika-Lumoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketak* txostenetatik hartu ditugu. SEIk egin zuen 2001eko eta Soziolinguistika Klusterrak 2006 eta 2011koa. Gainerako datu guztietarako iturria: *Euskal Herriko Hizkuntza-erabileraren kale-neurketa* 1989 (EKB), 1993 (EKB), 1997 (EKB), 2001 (SEI), 2006 (Soziolinguistika Klusterra) eta 2011 (Soziolinguistika Klusterra).

Bilakaeraren norabideari eta gorabeherei erreparaturaz, eta ñabardurak ñabardura, nahiko dinamika antzekoak antzematen dira Euskal Herrian, EAEn eta Bizkaian. Lehen bi eremuetan, erabilerak gora egin du 2006a

bitarte. Bizkaian gorakada 2001a bitartekoa izan zen, 2006an aurreko erabilera-maila bera jaso baikeuen. Hiru eremuetan azken bost urteotan beherakada apala gertatu da.

Gernika-Lumoko portaera aztertzeko, urteetan atzerago begiratuta (eta kasu horretan erdiguneko datuak erabilia, ez dugu besterik eta), 1993. urtetik 2001. urtera euskararen erabilera erdigunean asko igo zela ikusiko dugu, %34,3tik %57,2ra, eta hortik aurrera euskararen erabilerak atzera egin du.

5. TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERAREN BILAKAERA. EUSKAL HERRIA, EAE, BIZKAIA, ETA GERNIKA-LUMO, 1989-2011 (EUSKARAZ%)

	Euskal Herria	EAE	Bizkaia	GERNIKA-LUMO: erdigunea	GERNIKA-LUMO
	%	%	%	%	%
1989	10,8	11,5	8,1	34,8	
1993	11,8	13,5	9,6	34,3	
1997	13,0	15,2	10,5	42,9	
2001	13,3	15,9	10,7	57,2	54,3
2006	13,7	16,8	10,7	52,5	51,5
2011	13,3	16,1	9,4	47,2	48,9

Iturriak: Gernika-Lumoko 2001., 2006. eta 2011. urteetako datuak Udalaren eskariz egindako *Gernika-Lumoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketak* txostenetatik hartu ditugu. SEIk egin zuen 2001ekoa eta **Soziolinguistika Klusterrak** 2006 eta 2011koa. Gainerako datu guztietarako iturria: *Euskal Herriko Hizkuntza-erabileraren kale-neurketa* 1989 (EKB), 1993 (EKB), 1997 (EKB), 2001 (SEI), 2006 (Soziolinguistika Klusterra) eta 2011 (Soziolinguistika Klusterra).

6 ZONALDEKAKO EMAITZAK


Herritarrek leku publikoetan zer hizkuntza erabiltzen duten neurtzea xede izanik, herriko bizitza soziala gertatzen den zonaldeetan egin dugu behaketa. Zonalde horiek zehazteko, udalerriko herritarren harreman-gune nagusiak non kokatzen diren zehaztu ohi da, eta behin zonalde horiek definitu ostean, zonalde bakoitzaren barruan jarraitu beharreko ibilbidea erabaki, udaleko teknikariekin elkarlanean. Gernika-Lumoren kasuan, sei eremu aztertu ditugu guztira. Hiru eremuek (Erdialdeak, Lurgorrik eta Errearteria/Lorategietak) Gernikako kale garrantzitsuenak biltzen dituzte, datu horien baturak emango digute udalerriko hizkuntza-erabileraren berri. Beraz, txostenean, orain arteko ataletan, emaitza horiek aurkeztu ditugu.

Gainontzeko hiru eremuek herriko ikastetxeen ingurunea aztertzen dute. Eremu horiek nola osatu diren jakiteko, ikus metodologiaren 2.2. atala.

Emaitzak taula eta grafiko hauetan aurkeztu ditugu, eta bertan ikus dezakegun bezala, dezenteko aldea dago eremuen artean: laugarrenean (Allende Salazar ikastetxe inguruan) eta seigarrenean entzun dugu euskara gehien (Seber Altube-Allende Salazar inguruan), eta hirugarrenean gutxien (Errearteria/Lorategietan).

Aipagarria da, institutu inguruan Allende Salazar eta Seber Altube inguruan baino dezenteko gutxiago entzun dugula euskaraz hitz egiten. Institutua neurtu dugun ibilbidean erabilera orokorra %51,6koa izan da, eta beste bi ikastetxeetan, aldiz, %63-%68 bitarteko erabilera jaso dugu.

K. GRAFIKOA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, ZONALDEAREN ARABERA. GERNIKA-LUMO, 2011 (EUSKARAZ, %)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Gernika-Lumoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2011.

6. TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, ZONALDEAREN ARABERA. GERNIKA-LUMO, 2011

	GUZTIAK	1. ibilbidea: Erdialdea	2 ibilbidea. Lurgorri	3.ibilbidea. Errenteria/ Lorategieta	4.ibilbidea	5.ibilbidea	6.ibilbidea
Euskaraz	52,0	47,2	57,3	37,4	68,0	51,6	62,9
Gaztelaniaz	42,8	47,3	38,0	52,6	29,8	42,5	35,5
Beste hizkuntzetan	5,2	5,5	4,7	10,0	2,2	5,9	1,6
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Oinarria (kasu kopurua)	(6098)	(2356)	(1352)	(633)	(541)	(779)	(437)


Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Gernika-Lumoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2011.

7 HIZTUNEN EZAUGARRIEN ARABERAKO DATUAK

7.1 Sexuaren araberako emaitzak

Ez dago alde handirik gizonezkoen eta emakumezkoen hizkuntza-portaeren artean. 2011ko datuetan, 2,4 puntukoa da aldea, eta ezin esan daiteke, hortaz, esanguratsua denik.

L. GRAFIKOA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, SEXUAREN ARABERA. GERNIKA-LUMO, 2011 (EUSKARAZ, %)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Gernika-Lumoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2011.

7. TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, SEXUAREN ARABERA. GERNIKA-LUMO, 2011


	GUZTIAK	Emakumezkoak	Gizonezkoak
Euskaraz	48,9	47,9	50,3
Gaztelaniaz	45,2	46,1	44,0
Beste hizkuntzetan	5,9	6,0	5,7
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0
Oinarria (behatutako solaskideak)	(4341)	(2397)	(1944)

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Gernika-Lumoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2011.

7.2 Sexuaren araberako bilakaera

Euskararen kale-erabileraren bilakaera sexuka aztertzeko datuak aurkezten ditugu honako taula eta grafiko hauetan. Ikus daitekeenez, aztertutako neurketa guztietan gizonezkoak apur bat gainetik ageri dira euskararen erabileran. Ez da, hortaz, aldaketa aipagarriarik antzematen aztertutako epealdian.

M. GRAFIKOA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, SEXUAREN ARABERA. GERNIKA-LUMO, 2001-2011 (EUSKARAZ, %)



Iturriak: Udalaren eskariz egindako Gernika-Lumoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketak. SEIk egin zuen 2001ekoa eta Soziolinguistika Klusterrak 2006 eta 2011koa.

8. TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, SEXUAREN ARABERA. GERNIKA-LUMO, 2001-2011 (EUSKARAZ, %)


	GUZTIAK	Emakumezkoak	Gizonezkoak
2001	53,9	48,6	49,4
2006	51,7	53,5	58,3
2011	48,9	47,9	50,3

Iturriak: Udalaren eskariz egindako Gernika-Lumoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketak. SEIk egin zuen 2001ekoa eta Soziolinguistika Klusterrak 2006 eta 2011koa.

7.3 Adinaren arabera emaitzak

Alde esanguratsuak antzematen dira hizkuntza-portaera adinaren arabera aztertuz gero. Datuak ikusita, joera argia antzematen da Gernika-Lumon: zenbat eta belaunaldi gazteagokoak izan, orduan eta gehiago erabiltzen dute euskara. Horrela, haurrak (2-14 urte) dira euskara gehien erabiltzen dutenak: 2011ko neurketan, Gernika-Lumon behatutako haurren %68,1 ari izan dira euskaraz. Ondoren, gazteak ditugu (%51,0 aritu dira euskaraz). Atzetik datoz helduak (%41,0ko erabilera) eta, azkenik, adinekoak (%33,3). Aldeak, hortaz, handiak dira, eta haurren erabilera-tasa, adibidez, adinekoena bikoiztera iristen da.

N. GRAFIKOA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, ADINAREN ARABERA. GERNIKA-LUMO, 2011 (EUSKARAZ, %)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Gernika-Lumoko hizkuntza-erabilera kale-neurketa, 2011.

Adinaren arabera hizkuntza-portaera hori bat dator Euskal Herri osoan gaur egun antzematen denarekin: haurrek erabiltzen dute gehien euskara, ondoren gazteek, gero helduek eta, azkenik, adinekoek. Esan beharrik ez

dago, belaunaldi berriak etorkizunaren aitzindari eta aurrerapen diren heinean, banaketa hori dela egokiena euskararen berreskurapenaren ikuspuntutik.

9. TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, ADINAREN ARABERA. GERNIKA-LUMO, 2011


	GUZTIAK	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak
Euskaraz	48,9	68,1	51,0	41,0	33,3
Gaztelaniaz	45,2	28,7	41,2	51,4	62,6
Beste hizkuntzetan	5,9	3,2	7,8	7,6	4,1
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Oinarria (behatutako solaskideak)	(4341)	(1263)	(461)	(2050)	(567)

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Gernika-Lumoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2011.

Horrek guztiak zerikusia du, jakina, batzuen eta besteen hizkuntza-gaitasunarekin, belaunaldi berriak baitira euskaldunenak Euskal Herriko zonalde askotan, baita Gernika-Lumo bertan ere. Taula eta grafiko hauetan ikus daitekeenez, aldeak daude herritarren hizkuntza-gaitasunean, adinari erreparatuta. EUSTATen datuen arabera, euskaldunak %68,3 dira Gernika-Lumoko adinekoen artean eta %64,3 helduen artean. Gazteen artean, berriz, hiru laurdenak baino gehiago dira euskaldunak (%79,4) eta berdintsu gertatzen da haurren artean ere (%75,9). Horiek horrela, ez da harritzekoa belaunaldi berriek euskara gehiago erabiltzea, oro har, zaharragoek baino.

Hori horrela izanik, ordea, adin-taldeka hizkuntza-gaitasunean antzematen diren aldeek ez dute guztiz azaltzen hizkuntza-erabileran adin-talde bakoitzak ageri duen jokabidea. Proporzionalki, izan ere, dagoen ezagutza mailarako, haurrek eta gazteek baino gutxiago darabilte euskara Gernika-Lumoko helduek eta, batez ere, adinekoek.

O. GRAFIKOA: EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNA, ADINAREN ARABERA. GERNIKA-LUMO, 2006 (%)



Iturria: EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika, 2006.

10. TAULA: EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNA, ADINAREN ARABERA. GERNIKA-LUMO, 2006

	GUZTIAK	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak
	(kop.)	(kop.)	(kop.)	(kop.)	(kop.)
Euskaldunak	10.552	1.180	1.286	5.904	2.182
Ia euskaldunak	2.779	276	178	1.982	343
Erdaldunak	2.216	99	156	1.291	670
GUZTIAK	15.547	1.555	1.620	9.177	3.195
	(%)	(%)	(%)	(%)	(%)
Euskaldunak	67,9	75,9	79,4	64,3	68,3
Ia euskaldunak	17,9	17,7	11,0	21,6	10,7
Erdaldunak	14,3	6,4	9,6	14,1	21,0
GUZTIAK	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0


Iturria: EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika, 2006.

7.4 Adinaren araberako erabileraren bilakaera

Adinaren araberako hizkuntza-portaeraren bilakaerari erreparatuz, honako joera hauek antzematen dira adin-tarteetan:

- Hurrek maila bertsuan eutsi diote euskararen erabilerari azken hamar urteotan, gora behera handirik gabe.
- Gazteen artean, berriz, badirudi 2006ko neurketan jasotako igoeraren eragina lausotu egin dela, eta 2011ko emaitzek antz handiagoa dute 2001ekoekin, 2006koekin baino.
- Helduen artean ez da aldaketa handirik antzematen 2001-2011 aldian.
- Adinekoen artean, azkenik, jaitsiera handia erakusten dute datuek azken neurketa honetan: 2006. urtean %54,2koa zen erabilera, 2011. urtean %33,3koa izan da.

P. GRAFIKOA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, ADINAREN ARABERA. GERNIKA-LUMO, 2001-2011 (EUSKARAZ, %)



Iturriak: Udalaren eskariz egindako Gernika-Lumoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketak. SEIk egin zuen 2001ekoa eta Soziolinguistika Klusterrak 2006 eta 2011koa.

11. TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, ADINAREN ARABERA. GERNIKA-LUMO, 2001-2011 (EUSKARAZ, %)


	GUZTIAK	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak
2001	53,9	70,7	51,4	46,4	51,4
2006	51,7	71,3	66,4	45,1	54,2
2011	48,9	68,1	51,0	41,0	33,3

Iturriak: Udalaren eskariz egindako *Gernika-Lumoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketak*. SEIk egin zuen 2001ekoa eta **Soziolinguistika Klusterrak** 2006 eta 2011koa.

7.5 Euskararen erabilera eta haurren presentzia

Nola aldatzen da hizkuntzen erabilera solas-taldea era batekoa edo bestekoa izan? Zehazki, haurrak eta nagusiak (gazte, heldu zein adindu) elkarrekin nahasian aritu edo ez, horrek ba al du eraginik hizkuntza baten edo bestearen aldeko hautuan?

Q. GRAFIKOA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, SOLAS-TALDEAREN OSAERAREN ARABERA. GERNIKA-LUMO, 2011 (EUSKARAZ, %)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Gernika-Lumoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2011.

Datuak ikuspegi horretatik aztertuta, argi geratzen da zein den joera nagusia: hizkuntza-portaerak aldatu egiten dira solas-taldearen osaeraren arabera. Zehazki, nagusiek, euren artean (haurrik gabe) ari direnean, askoz ere gutxiago erabiltzen dute euskara, haurrekin ari direnean baino. Nagusien arteko kale-elkarrizketetan, adibidez, %33,1 izan dira

euskarazkoak. Hurrekin ari direnean, berriz, %61,7ra igotzen da (%40,7ra, mintzo dena nagusia bera den kasuetan).

Haurren kasuan, berriz, ez da alde handirik antzematen, eta maila bertsuan egiten dute euskaraz euren artean ari direnean (%71,4) edo nagusiekin ari direnean (%61,7), gehienbat nagusiekin ari direnean mintzo dena haurra den kasuetan (%75,5).

12. TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, SOLAS-TALDEAREN OSAERAREN ARABERA. GERNIKA-LUMO, 2011

	GUZTIAK	Haurrak bakarrik (nagusirik gabe)	Nagusiak bakarrik (haurrik gabe)	Haurrak eta nagusiak nahasian	Nagusia hitz egiten	Haurra hitz egiten
Euskaraz	48,9	71,4	33,1	61,7	40,7	75,5
Gaztelaniaz	45,2	27,3	59,5	33,0	55,1	18,4
Beste hizkuntzetan	5,9	1,3	7,4	5,3	4,2	6,0
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Oinarria (behatutako olaskideak)	4.341	468	2.090	1.783	708	1.075

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Gernika-Lumoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2011.

Laburtuz, beraz, hurrek maila bertsuan erabiltzen dute euskara nagusiekin nahasian edo hurrekin soilik daudenean; nagusiek, berriz, gehiago erabiltzen dute euskara hurrekin daudenean, nagusi artean soilik daudenean baino. Nagusien portaera horretan zerikusia izango du, batetik, haurren artean euskaldun gehiago izateak. Hots, nagusi euskaldunak errazagoa izango du hurrekin euskaraz aritzea beste nagusiekin baino (horien artean gehiago baitira euskaraz ez dakitenak).

Baina ohituren pisua ere erantsi behar zaio horri, erdaraz hitz egiteko ohituraren pisua alegia. Horretaz gain, azkenik, nagusi euskaldun askoren hizkuntza-gaitasun nola-halakoak ere izango du zerikusirik. Gernika-Lumoko nagusi euskaldun asko gaztelaniaz hobeto moldatuko dira euskaraz baino,


hobeto adieraziko dute esan nahi dutena hizkuntza horretan, eta askotan horixe izango da euren hautu praktikoa. Zeharka bada ere, beraz, hizkuntza-gaitasunean ahulgune bat dagoela adieraziko ligukete datu horiek. Gernika-Lumoko hainbat nagusi euskaldunek, euskaraz hitz egiteko gai izanda ere, badirudi zailtasunak dituztela esan nahi dutena euskaraz ondo, azkar eta adierazkortasunez adierazteko orduan.

Nagusien artean erdarara jotzeko ohitura duten herritar euskaldun horietako gehienek, ordea, badirudi hurrengo belaunaldiei euskara transmititzearen aldeko kontzientzia badutela. Eta horregatik, nagusien artean daudenean ez bezala, hurrekin euskaraz hitz egiten dute.

7.6 Erabilera eta haurren presentzia: bilakaera

Bilakaera aztertuz, esan dezakegu Gernika-Lumon 2011n bildu ditugun datuek ez dutela deus berririk esaten solas-taldearen osaeraren arabera erabileraz, eta bost urte lehenago ere joera bera ageri zela; hots, haurrak haurrekin eta nagusiak haurrekin zeudenean eta daudenean, gehiago erabiltzen zutela eta dutela euskara, nagusiak euren artean (haurrik gabe) daudenean baino. Ez dirudi, hortaz, fenomeno berri-berri baten aurrean gaudenik.

R. GRAFIKOA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, SOLAS-TALDEAREN OSAERAREN ARABERA. GERNIKA-LUMO, 2001-2011 (EUSKARAZ, %)



Iturriak: Udalaren eskariz egindako Gernika-Lumoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketak. SEIk egin zuen 2001ekoa eta Soziolinguistika Klusterrak 2006 eta 2011koa.


Bilakaera-datuei erreparatuz, esan dezakegu ez dela aldaketarik izan haurren arteko elkarriketa-ohituretan. Badirudi, ordea, haurrak eta nagusiak elkarrekin daudenean apur bat behera egin duela euskararen erabilerak (aldeak, hala ere, ez dira oso handiak; etorkizuneko ikerketek baieztatu edo ezeztatu beharko dute joera hori), eta badirudi, azkenik,

nagusien artean jaitsi egin dela euskararen erabilera azken bost urteotan:
%46,7koa zen 2006an eta %33,1ekoa izan da 2011n.

7.7 Neurketa-egunen arabera emaitzak

Metodologia atalean azaldu bezala, hainbat neurralditan egin dugu 2011ko *Gernika-Lumoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa*. Taula eta grafiko hauetan, neurraldiz neurraldi jasotako datuak aurkeztu ditugu. Ikus daitekeen bezala, badaude aldeak neurraldien emaitzetan.

S. GRAFIKOA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, NEURRALDIEN ARABERA. GERNIKA-LUMO, 2011 (EUSKARAZ, %)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, *Gernika-Lumoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa*, 2011.

13. TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, NEURRALDIEN ARABERA. GERNIKA-LUMO, 2011

	Euskaraz	Gaztelaniaz	Beste hizkuntzetan	GUZTIRA	Oinarria (behatutako solaskideak)
Irailak 21, asteazkena, 18:00-20:00 (1. ibilbidea. Erdialdea)	47,8	44,4	7,7	100,0	(738)
Irailak 24, larunbata, 11:00-13:00 (1. ibilbidea. Erdialdea)	53,0	43,9	3,1	100,0	(715)
Irailak 24, larunbata, 18:00-20:00 (1. ibilbidea. Erdialdea)	42,2	52,3	5,5	100,0	(903)
Azaroak 12, larunbata, 11:00-13:00 (2. ibilbidea. Lurgorri)	55,0	39,8	5,1	100,0	(565)
Azaroak 5, larunbata, 18:00-20:00 (2. ibilbidea. Lurgorri)	54,6	37,5	8,0	100,0	(251)
Irailak 28, asteazkena, 18:00-20:00 (2. ibilbidea. Lurgorri)	61,0	36,4	2,6	100,0	(536)
Urriak 5, asteazkena, 18:00-20:00 (3. ibilbidea. Erreterria/Lorategieta)	35,0	57,1	8,0	100,0	(226)
Urriak 8, larunbata, 11:00-13:00 (3. ibilbidea. Erreterria/Lorategieta)	35,9	59,1	5,0	100,0	(181)
Urriak 8, larunbata, 18:00-20:00 (3. ibilbidea. Erreterria/Lorategieta)	41,2	42,9	15,9	100,0	(226)
Urriak 17, astelehena, 13:00-15:30 (4. ibilbidea)	64,6	28,0	7,3	100,0	(82)
Urriak 17, astelehena, 16:00-18:00 (4. ibilbidea)	68,6	30,1	1,3	100,0	(459)
Urriak 24, astelehena, 13:00-15:30 (5. ibilbidea)	48,3	45,2	6,5	100,0	(493)
Urriak 24, astelehena, 16:00-18:00 (5. ibilbidea)	57,3	37,8	4,9	100,0	(286)
Azaroak 7, astelehena, 13:00-15:30 (6. ibilbidea)	46,0	47,0	7,0	100,0	(100)
Azaroak 7, astelehena, 16:00-18:00 (6. ibilbidea)	68,0	32,0	0,0	100,0	(337)

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Gernika-Lumoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2011.

8 DATU NAGUSIEN IRAKURKETA (LABURPENA)

Hona hemen 2011. urteko udazkenean, **Gernika-Lumoko Udalaren** eskariz, **Soziolinguistika Klusterrak** egindako *Gernika-Lumoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa*, 2011 ikerketaren ondorio nagusiak:

- Gure behaketaren arabera, %48,9koa izan da Gernika-Lumon euskararen erabilera. Elkarriketa gehienak, hortaz, euskaraz izan dira. Gainerakoak gaztelaniaz (%45,2) edo beste hizkuntza batzuetan (%5,9) izan dira.
- Udalerriko hiru ikastetxeen inguruan egindako neurketetan, erabilera altuena Allende Salazar eta Seber Altube inguruan jaso dugu, eta baxuena Institutu inguruan.
- Euskararen erabilerak zertxobait behera egin du Gernika-Lumon azken hamar urteotan bost puntu jaitsi da, %54,3tik %48,9ra. Jaitsiera etengabekoa eta progresiboa izan da; hau da, lehen bost urtetan -2001etik 2006ra-, gutxi gora behera, bi puntu eta erdi jaitsi zen, eta beste hainbeste jaitsi da azken bost urtetan.

- Datu zaharragoetara joz, badirudi Gernika-Lumoko erdigunean, euskararen erabilerak indartsu egin zuela gora 1989-2001 tartean, baina hortik aurrera, esan bezala, behera egin du.
- Euskara gehiago erabiltzen da Gernika-Lumon (%48,9), Gernika-Bermeo eskualdean baino (%42,4), eta zer esanik ez Bizkaian (%9,4), EAEn (%16,1) eta Euskal Herrian (%13,3) baino.
- Datuak adinaren arabera aztertuta, joera argia antzematen da Gernika-Lumon: zenbat eta belaunaldi gazteagokoak izan, orduan eta gehiago erabiltzen dute euskara. Horrela, haurrak (2-14 urte) dira euskara gehien erabiltzen dutenak: 2011ko neurketan, behatutako haurren %68,1 aritu dira euskaraz. Ondoren, gazteak ditugu (%51,0 euskaraz). Atzetik datoz helduak (%41,0) eta, azkenik, adinekoak (%33,3). Adinekoen artean, asko jaitsi da euskararen erabilera azken bost urteotan: 54,2koa zen 2006an eta %33,3koa izan da 2011n.
- 2011ko neurketaren arabera, hurrek maila bertsuan erabiltzen dute euskara nagusiekin nahasian edo hurrekin bakarrik daudenean; nagusiek, berriz, gehiago erabiltzen dute euskara hurrekin daudenean, nagusi artean soilik daudenean baino. Zeharka bada ere, Gernika-Lumoko hainbat euskaldunen hizkuntza-gaitasun nola-halakoaren berri ematen digu datu horrek, eta baita hurrengo belaunaldiei euskara transmititzeko borondatearen berri ere.